

Bilbao , 2020.eko maiatzaren 21a

Adiskideok.

Laikotzarako Idazkaritzatik, agur beroa bialtzen deusuegu. Maiatzaren 31n, Mendekoste eguna ospatuko dogu. Urtero lez, egun horretan, Ekintza Katolikoaren eta Laikoen Apostolutzaren eguna be ospatuko dogu. Pandemiaren eraginez, zailtasunez eta ziurgabetasunez beteta ospatuko dogu eta, aldi berean, hainbeste eremutan, hainbeste lagunen alde erakusten dihardugun gertutasunetik, akonpainamendutik, alkartasunetik. Egoera honetan, oihartzun berezia dabe Jesusen berbek: "*Eta ni zeurekin izango nozue egunero munduaren azkenera arte*" (Mt 28, 20). Bere Espirituak adore emoten deusku eta ltxaropenean eusten gaitu.

"*Mendekoste barriturantz*", goiburuak "Jainkoaren herria abian" ospatu barri dan Laikoen Biltzarra dakarsku gogora eta joan dan kurtsoaren amaieran biltzarra prestatzeko ekin geuntsan prozesuari jarraipena emotera garoaz. Otsailaren 14tik 16ra, bi mila lagunetik gora alkartu ginan Madrilan. Alkartasunezko biltzar lez bizi izan genduan gertaera ha. Orain, hango irrikari jarraipena emon gura deusagu, lau ibilbide garatuz: lehenengo iragarpena, akonpainamendua, heziketa eta gerpen publikoa. Biltzarraren web orrialdean: www.pueblodediosensalida.com, eskuratu daitekez berbaldiak, esperientziak eta bizipenak, ospakizunak... Tresna egokiak dira sakontzen jarraitzeko eta biltzarraren osteko ibilbidean aurrera egiteko.

Egun hau dala-eta, Laikotza, Familia eta Bizirako Gotzain Batzordetik hainbat bitarteko prestatu da: hausnartzeko lagungarriak, helduen, gazteen eta umeen katekesia, Otoitz-gaubela, liturgia lagungarriak Mendekoste-egunerako eta kartela. Eleizbarrutiko orrialdearen bitartez jadetsi daitezue: <http://www.bizkeliza.org/pastoral/movimientos-y-asociaciones/dia-ac-y-apostolado-seglar-2020/>

Frantzisko Aita Santuak Biltzarrari zuzendutako berbak gogoratuz amaituko dogu: "*Jainkoaren Hitza gogo biziz eta poztasunez hots egin behar dogu kristau lekukotasunaren bidez, bakartzen eta baztertzen daben harresirik altuenak be behera botateko. Zeuon ordua da, kulturaren, politikaren, industriaren,... munduan konprometitutako gizon eta emakumeona, zeuon bizimoduarekin Barri Onaren barritasun eta poztasuna zagozen leku guztietara eroateko gauza zarien gizon eta emakumeona*".

Jainkoaren herri misiolari eta santu izan gura dogu gure munduan. Aitzindari eta gidari dogun Espirituaren eskuetan jarriko gara.

Besarkada bat!
Maite Valdivieso Peña
Laikotzarako Idazkaritza

Bilbao 21 de mayo 2020

Queridos amigos y amigas

Desde el Secretariado para el Laicado, os transmitimos un saludo cordial. El próximo domingo 31 de mayo es la solemnidad de Pentecostés. Y como cada año, nos unimos también en la celebración del Día de la Acción Católica y del Apostolado Seglar. Una Jornada que vivimos en momentos de dificultad e incertidumbre como consecuencia de la actual pandemia y que estamos afrontando desde la cercanía, el acompañamiento, la solidaridad, en tantas situaciones, con tantas personas. En medio de esta realidad resuenan de modo especial las palabras de Jesús "Y sabed que yo estoy con vosotros todos los días hasta el final del mundo" (Mt 28,20). Su Espíritu nos alienta y sostiene en la Esperanza.

El lema elegido para este año "*Hacia un renovado Pentecostés*", nos sitúa en la reciente celebración del Congreso de Laicos "*Pueblo de Dios en salida*", y en la continuidad del proceso que iniciábamos con su preparación a finales del curso pasado. Del 14 al 16 de febrero, nos reuníamos en Madrid más de dos mil personas. Un acontecimiento que vivimos como un gran encuentro de comunión. Ahora se trata de dar continuidad a ese anhelo, desplegando cuatro itinerarios: primer anuncio, acompañamiento, formación y presencia pública. En la página web del Congreso www.pueblodediosensalida.com, están disponibles las ponencias, las experiencias, y vivencias compartidas, las celebraciones de esos días... Son unas buenas herramientas para seguir profundizando y avanzar en el camino del post-congreso.

También, con motivo de esta Jornada se han preparado desde la Comisión Episcopal para los Laicos, Familia y Vida, varios recursos: materiales de reflexión, catequesis para adultos, jóvenes y niños, una Vigilia de Oración, el Subsidio Litúrgico para la celebración del Domingo de Pentecostés y el cartel de la Jornada. Podéis acceder a ellos a través de la web diocesana:

<http://www.bizkeliza.org/pastoral/movimientos-y-asociaciones/dia-ac-y-apostolado-seglar-2020/>

Finalizamos recordando unas palabras que el Papa Francisco dirigió al Congreso: "*La Palabra de Dios necesita ser predicada con pasión y alegría a través del testimonio cristiano para poder derrumbar hasta los muros más altos que aíslan y excluyen. Es la hora de ustedes, de hombres y mujeres comprometidos en el mundo de la cultura, de la política, de la industria... que con su modo de vivir sean capaces de llevar la novedad y la alegría del Evangelio allá donde estén*".

Queremos ser Pueblo de Dios, misionero y santo en medio de nuestro mundo. Nos ponemos en las manos del Espíritu que nos precede y nos guía.

Un abrazo para todos y todas
Maite Valdivieso Peña
Secretariado para el Laicado